

Maiatzaren 12an
4. PAZKO IGANDEA

Bokazioen alde otoitz egiteko Mundu Jardunaldia
Misio herrietako bokazioen jardunaldia
“Esan baietz Jainkoaren ametsari”

Agurra

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Kristoren Piztuera ospatzen jarraitzen dugu eta gaurkoan Beraren Artzain on izateari begiraten diogu. Berak zaintzen gaitu, berak babesten. Badakigu zenbat egin duen gure alde!

Gaur, Bokazio aldeko Mundu jardunaldia dugu: “Jainkoaren Ametsari” goiburuarekin. Eta, gainera, Misio herrietan apaiz izateko prestatzen direnei laguntzeko eskaintzen dugu otoitza eta diru-bilketa. Munduko bazter guztietan izan daitezen Kristo Artzain onaren irudi izango direnak.

Bataio-urez zirtatzea

Senideok: Eukaristia ospatzera goaz; Bataiokoan bat egin genuen era berezian Kristo Piztuarekin eta berak bildu gaitu gaur bere mahaian. Geure Bataioa oroitzuz bat egin dezagun Jainkoarekin.

Herria zirtatuko du apaizak elizan barrena ibiliz.

Bitartean kantu egokiren bat: ikus liburuxka honen 64. orrialdean.

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala.

R/. Amen.

Erruki, Jauna. R/. Erruki, Jauna.

Kristo, erruki. R/. Kristo, erruki.

Erruki, Jauna. R/. Erruki, Jauna.

Aintza zeruetan

Kanta dezagun aintzazko gorazarrea, gure alde otoitz egiteko Aitaren eskuin aldean dagoen Jesu Kristo Jaunari dei eginez.

Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
 eraman gaitzazu zeruko atseginen jabe izatera,
 fededunen artalde apala iritsi dadin,
 beronen artzaina den Kristo iritsi den lekuraino.
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Apostoluen inguruan sortutako elkartearen testigantza, aberasgarri dugu gaur senide elkartasunean bizitzeko. Jesus fedez onartzeak, egiazko bizia ematen digu.

Lehenengo irakurgaia (Eg 13, 14. 43-52)

Apostoluen Eginetatik

Judutar eta Jaungoikoa gurtzen zuten proselito askok jarraitu zien; eta Paulo eta Bernabek, haiekin hitz eginez, berotu egiten zituzten, Jaungoikoaren graziari leial jarrai ziezaioten.

Hurrengo larunbatean, ia herri osoa bildu zen Jaungoikoaren hitza entzuteko. Jendetza hura ikusita, judutarrak bekaitzez bete ziren eta irainka erantzuten zioten, Paulok esaten zuenari. Orduan, Paulo eta Bernabe kementsu mintzatu ziren:

«Beharrezkoa genuen, lehenengo zuei hotsegitea Jaungoikoaren hitza; baina, hitz hau ezetsi eta zeuek betiko bizitzarako gai ez zaretela erabakitzen duzueenez gero, atzerrietara goaz. Hau agindu baitigu Jaunak: "Atzerrien argitzat jartzen zaitut, lurraren bazterreraino nire salbamen izan zaitezten"».

Jentilak poztu egin ziren hau entzutean, eta Jaunaren hitza goresten zuten; eta betiko bizitzarako zirenek sinetsi zuten.

Jaunaren hitza zabaltzen ari zen herrialde hartan guztian. Baina judutarrek berotu zituzten handiketako emakume jainkozale batzuk eta herriko jauntxoak; eta Paulo eta Bernaberen kontra erasoaldia sortu zuten, eta beren mugetatik bota zituzten. Hauek, beren oinetako hautsa haien aurka astinduta, Ikoniora joan ziren. Ikasleak, berriz, pozez eta Espiritu Santuaz beterik gelditu ziren.

Erantzun-salmoa (Sal 99, 2. 3. 5)

Jau-na-ri kan - ta, o-na bai - ta, hain du haun-di-
a be - re be - ti - ko e-rru - ki - a.

Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari,
Jaunari zerbitzu alai egiozue,
Haren aurrera pozez oihuka sar zaitezte. R/.

Jakizue Jauna dela Jainko,
Berak egin gaitu, Berarenak gara,
Beraren herri eta larreko artalde. R/.

«Onbera baita Jauna,
Haren maitasuna betidaino,
Haren leialtasuna mendeen mendeetaraino.» R/.

Bigarren irakurgaia (*Apk 7, 9. 14b-17*)

Apokalipsi liburutik

Nik, Joanek, talde handi bat ikusi nuen, inork zenbatu ezin halakoa, enda eta leinu, herri eta hizkuntza guztietakoa, aulkiaren eta Bildotsaren aurrean zutik, zuriz jantziak, eta palma adarrak eskuetan.

Eta zaharretako batek honela esan zidan: «Hauek nekaldi handitik datozenak dira. Bildotsaren odoletan garbitu dituzte eta zuritu beren jantziak. Horregatik daude Jaungoikoaren aulki aurrean, eta gau ta egun gur egiten diote bere jauretxean; eta aulkian eseririk dagoena haien artean biziko da. "Ez dute izango gehiago, ez goserik, ez egarririk; ez ditu joko, ez eguzkiak, ez sargoriak". Aulki aurrean dagoen Bildotsa "izango baitute artzain, eta Berak eramango ditu ur bizien iturrietara. Eta Jaungoikoak txukatuko ditu haien begietako malkoak"».

Aleluia (*Jn 10, 14*)

Ni naiz artzain ona -dio Jaunak-;
ezagutzen ditut neure ardiak,
eta neureek ezagutzen naute Ni. R/.

Ebanjelioa (*Jn 10, 27-30*)**Homiliarako argibideak** (*Ik. Bokazioen Jardunaldirako Aita Santuaren mezua*)*Onginahiz begiratzen digu*

Gutako asko familiako tradizioz hasten gara kristau izaten, baina konbentzituta nago guztiok esperimentatu dugula gure bizitzan Kristorekin bat egin izana, eta txundituta geratu garela, gure bizitzaren zentzua aurkitu dugulako. Jesusek “onginahiz eta maitasunez begiratzen digu” beti, gogorarazten digu Frantzisko Aita Santuak Bokazioen aldeko egun honetan. Denok dugu bokazio bat, baita sinesten ez dutenek ere. Denok bizi izan dugu **bizitzarako deia**, gure bizitzari zentzua emateko deia. Komunitatera zabaldua eta mundu gizatiar eta anaiartekoagoa eraikitzeko lanean bakarrik aurkitzen da zentzu hori.

Kristauak Jesus Artzain onaren presentzia aitortzen dute fededunen komunitatean eta, bereziki, euren bizitza Kristori eta komunitateari eskaini dieten euren artzainetan. Fededunek harreman estua dute euren artzainekin, eta jarraitu egiten diete benetan **Artzain Onaren** irudi direla ikusten dutenean (Jn 10,27-30). Tamalez, beti egongo dira ardiez zerbitzatzeko karguaz baliatzen diren mertzenarioak, haien zerbitzura egon beharrean.

Bokazioen aldeko egunak euren bizitza Elizaren eta besteen zerbitzura eman duten pertsonengan pentsatzera garamatza. Ezkontza kristaua ere bokazioa da, noski. Familia kristauetan ernaltzen dira bokazioak, ezkontzaren bokazioa, apaiz bokazioa eta erlijioso/erlijiosa izateko bokazioa. Komunitate osoak bereizi eta lagundu behar ditu, artzainak buru direla, Jaunak bertan pizten dituen bokazioak. Deia **entzuteko** nolabaiteko **gaitasuna** du berekin bokazioak. Nor berean setatzeko arriskua dago gaur egun, Pablari entzun ziotenek bezala (Eg 13,14. 43-52). Eginak zituzten euren eskemak, eta ez zuten onartzen eskema haietatik irteten zen ezer. Paganoak, berriz, erne zeuden Espirituaren berrikuntzarekiko.

Entzuteko gaitasunak **sintonia** suposatzen du hitz egiten duenaren eta entzuten duenaren artean. Bere entzuleak pixkanaka-pixkanaka berarekin identifika daitezzen egiten du Jesusek. Bere bizia guregatik

eman duen Bildots eskainia eta berpiztua delako da Jesus Artzain Ona, hain zuzen ere (Ap 7,9.14-17). Ez da harritzekoa bere ardiek entzutea, kasu egitea eta jarraitzea. Harekin bizi nahi dute, horrela aurkitzen dutelako bizia. Apaizek Jesusekin, Artzain Onarekin, identifikatu behar dute, eta Harengana eraman behar dituzte ardiak, ez eurengana.

Jesusek maitasunezko eta adiskidetasunezko erlazioa du fededunekin, Jainkoak itunaren barruan Israelekin zuenaren antzekoa. Jainkoak bezala, Jesusek ere harreman pertsonal estua du bere ardiekin, ezagutze eta maitasunezko harremana. Hautatutako maitasuna da, kutuna. Bere ardiek, aldiz, **entzunez eta jarraituz** erantzuten diote maitasun horri.

Ezerk ezin ditu jarraitzaileak bere Jaunarengandik bereizi, ordea, Harekin ziurtatuta baitute salbazioa. Aitak eman dizkio ardi horiek Kristori. Aitarenak dira ardiak, besteen gaintetik baitago, eta, horregatik, ezin dizkio inork Aitari eskutik kendu. Jesusengan sinesten dutenak esku onetan daude, Haren bitartez, **Aitaren eskuetan**. Bat dira Aita eta Jesus. Horregatik, herriaren Artzain modura ager daiteke Jesus, Jainkoarena berarena zen tituluarekin. Kristok berrerositako herriak Hura du artzain. Hark gidatzen ditu biziaren uraren iturrietara, **Jainkoaren Espiritura**. Jesusek emate digu bere Espiritua. Jesusek baketutako herria Jainkoaren etxean bizi da, horren tenpluan, gau eta egun gurtuz.

Eukaristian, Jainko gure Aita gurtzen dugu. Eskerrak ematen dizkiogu, Kristo Jesusek, gure Artzainak, salbatu gaituelako, bere biziarekin, bere hitzarekin, bere gorputzarekin eta bere odolarekin elikatzen gaituelako. Eska dezagun bokazioen alde eta, bereziki, Jesus, Artzain Ona, komunitatearen erdian presente egiten duten apaizen alde.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: gure begiak Kristori, gure arimen artzain eta gotzain dugunari zuzendurik, jar ditzagun Haren eskuetan konfiantza osoz, gizakien beharrak:

Erantzuna: **Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua!**



En - tzun, Zuk Kris - to, he - rri ho - nen oi - hu - a.

- Goztainedek, apaizek eta diakonoek zintzo zain dezaten beren eskuetan jarriak izan diren kristau elkarteak. Egigun otoitz. R/.
- Era guztietako bokazidunen alde: jakin dezatela Berari jarraitzera erruki-begiradaz deitu zien Jaunari erantzuten. Egigun otoitz. R/.
- Jesu Kristok ikasleei emandako bakea gure munduan errotu dadin eta herri guztietatik alden daitezen gorrotoak eta gerra guztiak. Egigun otoitz. R/.
- Gaixoeak, behartsuek eta sufritzen duten guztiek Kristo piztuarengan aurki ditzaten argia eta itxaropena. Egigun otoitz. R/.
- Jainkoak kristau familietan sakonera begira jartzen gaituen Espiritua isur dezan, elizaren ministeritza ezberdinetarako bokaziodunak erne daitezen. Egigun otoitz. R/.

Jainko Jauna, Aita ahalguztiduna, ezinduari osasuna ematean Kristo piztuaren argia ikusarazi zenuen; batu itzazu zeure familia bakarrean bekatuak sakabanatzen dituen gizakiak, eta egizu, Zure artaldeko kide izateaz poztu daitezela Kristo, Artzain onarekin bat eginik. Errege bizi baita, hilezkor eta aintzatsu, gizaldi eta gizaldietan.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Egitera goazen diru-bilketa, Misio herrietako apaiz bokaziodunei laguntzeko izango da.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Artzain ona zaren Jainko Jauna,
zaindu ezazu maitasunez zeure artaldea;
eta eraman betiko larre gurietara
zeure Semearen odolaz salbatu dituzun ardiak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Bedeinkapen nagusia (*Ikus liburuxka honetako 78-79. orrialdeetan*)